



EUSKAL DANTZEN IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA • xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

HELBURU OROKORRAK:

Euskal dantzak duen garrantzia jasotzea, bai ondare kultural bezala, bai jarduera sozial bezala. Talde-zentzua piztu. Hots, dantza taldeko kontzeptu bat bezala hartzea, pertsonen arteko lan bat dela kontuan izanik. Dantzaren bitartez diziplina, konpromisoaren eta errespetuaren kontzeptuak barneratu. Euskal Herriko dantzen ezagutza globala izatea, tradizioaren esanahia ulertu eta barneratzeko. Sormena sustatu. Tradizioaz gain, dantzaren bide desberdinak ezagutu. Bakoitzaren dantza-teknikak hobetu, egoera fisikoa hobetzen den neurrian (malgutasuna, koordinazioa, erritmoa...).

Publikoaren aurrean segurtasuna irabazi.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

Aurreko urtean ezarritako biderei jarraitu: tradizioa eta bide berriak uztartzen dituzten hainbat dantza erakutsi. Talde-kontzeptuarekin lanean jarraitu. Pixkanaka Euskal dantzako ikasleak talde baten parte direla ohartzea, eta ez ikasle soilak. Dantza-teknikaren kalitatea hobetu orokorrean: alde batetik, malgutasuna (nolakotasuna), eta bestetik, dantza-kopurua (koantitatibotasuna).

Hiruhilabeteka:

- 1.an: estiramenduei eta lehenago ikasitakoari garrantzia eman.
- 2.ean: dantzak ikasteari garrantzia eman.
- 3.ean: publikoaren aurrean egingo denari garrantzia eman.

PROZEDURA (EKINTZAK):

Ekintza hauek TOBERAn biltzen diren talde guztien osotasunari dagozkio. Hala, gertatuko da taldeetako bakoitzak ez hemen islatutako guztian aritzea.

Aurreko urteetako ekintza guztiak eta berriren bat.

Dantzari txiki bat baino gehiagora joan/parte hartu.

Egutegitik kanpo dauden ekintzak (Jaunartzeko arkuak...) barnean sartu, antolamendu hobe izateko.

Kanpora irteeraren bat egiteko aukera baloratuko da..

Jarraian, dantza-taldeen helburuak, edukia eta metodologia zehatza.



BERRIAK

- HELBURUAK

Dantzarekiko lehen kontaktua izan eta, honen bitartez, koordinazioa, mugikortasuna eta dantzarekiko interesa sortu.

Oinarrizko dantza eta teknikak ikasi.

Dantza eta doinuak nork bere kasa ezagutzen ikasi, irakaslearen laguntzarik gabe.

Pausoen koordinazioa landu, dantzarekiko teknika hobetuz.

- EDUKIAK

Dantzak: Zazpi-jauzi, Ipurdi-dantza, Txulalai, Luzaide, Lantz, Zapatari, Makil-txiki (jokoa), Altsasu.

Teknika: pausoak ondo ikasi, formazioak ondo egiten ikasi (borobilak, lerroak...), koordinazioa, mugikortasuna, ezker/eskuin bezalako kontzeptuak lantzen hasi....

Jokoak eskoletan zehar.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskola ematerakoan:

- 05/10 minutu sarrera eta ordenan jarri.
- 15/20 minutu dantzan eta ariketak.
- 10 minutu atsedena / jokoa
- 5/10 minutu dantza eta errepassoa.

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.



TXIKIAK 1

- HELBURUAK

Dantzarekiko lehen kontaktua izan ondoren, oinarriak finkatu eta dantza bere osotasunean ezagutzen hasi.

Ikasitakoa finkatu.

Dantza berriak ikasi, oinarrizko dantzetatik dantza konplexuagotara pasatuz.

Talde-zentzua piztu.

Publikoaren aurrean jarduteko oinarriak hartu.

- EDUKIAK

Dantzak: Lantz, Altsasu, Agurra, Senzilloak pausoa, Txotxongilo, Makil-Txiki (mugimenduarekin).

Teknika: talde bezala dantzatzen hasi, pausoa ondo finkatu eta oinarria hartu. Hau da, hurrengo urteetan beharrezko izango dituzten lehen ezagutza teknikoak jaso.

Estiramenduekin eta ariketekin lehenengo lanak egin.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskola ematerakoan:

- 05 minutu sarrera eta ordenan jarri.
- 15/20 minutu dantzan eta ariketak.
- 5 minutu atsedena / jokoak
- 10 minutu dantza eta errebasoa.

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.



TXIKIAK 2

- HELBURUAK

Dantzari oso bihurtzen hasi.
Arintasuna eta teknika landu.
Talde-koordinazioa finkatu.
Publikoaren aurrean jarduteko oinarriak hartu.

- EDUKIAK

Dantzak: Gipuzkoako Dantzetako pausoak eta dantzak, inauterietako dantzak (Lapurdi...), Banakoa, fandangoa, arin arina.
Teknika: Ariketei garrantzia emango zaie, teknika eta arintasuna hobetzeko.
Dantzatzekeo postura eta estiloa lantzen hasi.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskola ematerakoan:

- 15 minutu ariketak
- 15/20 minutu dantzan.
- 5 minutu atsedena / jokoak
- 10 minutu dantza eta errepassoa.

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.



ERTAINAK

- HELBURUAK

Dantzari baten oinarriak ezarri: ariketa, estiramendu eta entsegu luzeagotara ohitu.

Ikasitakoa finkatu.

Euskal dantza osotasunean ezagutzen hasi. Hots, errepertorioa zabaldu.

Talde-zentzua finkatu.

Publikoaren aurrean jarduteko oinarriak hartu.

- EDUKIAK

Dantzak: Gipuzkoako Dantzetako pausoak eta dantzak, Banakoa eta Txotxongilo, Xuletino, Eltziegoko dantzak, Lapurdi, fandangoa, arin-arina.

Teknika: pausoen teknika hobetzen hasi eta arintasunarekin lan egin. Horretarako, estiramenduak eta ariketak ugarituko dira.

Dantzatze postura eta estiloa lantzen hasi.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskola ematerakoan:

- 10 minutu ariketak
- 15/20 minutu dantzan.
- 5 minutu atsedena / jokoak
- 10 minutu dantza eta errepasoa.

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.



HANDIAK

- HELBURUAK

Dantzatzeke gaitasun orokorra lortu.

Ikasitakoa finkatu.

Euskal dantza osotasunean ezagutzen hasi. Hots, errepertorioa zabaldu.

Talde-zentzua finkatu.

Publikoaren aurrean jarduteko oinarriak hartu.

- EDUKIAK

Dantzak: Ikasi gabe dituzten Gipuzkoako Dantzetako pausoak eta dantzak, koreografiak (gaur egungoak edo garaikideak barne), Xuletino, Otsagabia, Eltziegoko dantzak...

Teknika: Arintasun eta teknika perfektionatu.

Dantzatzeke postura eta estiloa lantzen jarraitu.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskola ematerakoan:

- 10 minutu ariketak
- 15/20 minutu dantzan.
- 5 minutu atsedena / jokoak
- 10 minutu dantza eta errepasoa

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.



NAGUSIAK

- HELBURUAK

Dantzari bezala perfektionatu.

Ikasitakoa finkatu.

Euskal dantza osotasunean ezagutu. Hots, errepertorioa zabaldu.

Dantza-talde bat bezala funtzionatzen hasi. Dantzatik harago doazen erantzukizun eta konpromisoak emanez/hartuz.

Publikoaren aurrean jarduteko oinarriak finkatu.

- EDUKIAK

Dantzak: Ikasi gabe dituzten Gipuzkoako Dantzetako pausoak eta dantzak, koreografiak (gaur egungoak edo garaikideak barne; berriak), Xuletino, Otsagabia, Eltziegoko dantzak, Fandango eta arin-arinak...

Teknika: Arintasuna eta teknika perfektionatu.

Espresioa: aurpegiera eta gorputzaren postura hobetu.

Estilo jakin bat lortu.

- METODOLOGIA

Orokorrean, orden hau jarraituko da eskolak ematerakoan (bi orduak egun batean emango dira):

- 30 minutu ariketak
- 30 minutu dantzan.
- 5 minutu atsedena / jokoak
- 30 minutu dantza eta errepasoa.
- 20 minutu ariketak.

Baina, denboran zehar, aldaketak eman daitezke eta batzuetan eskola bereziak egon litezke, hainbat arrazoi dela-eta.